



COVID19 TXERTAKETA-ESTRATEGIA

Euskadiko osasun-sistema

2021eko martxoaren 9an eguneratua

1. LEHENTASUN-ORDENA OROKORRA

Irizpide orokorrak:

Covid19aren aurrean Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluak ematen dituen txertaketa-prozesurako lehentasun-irizpide orokorrak kalteberatasuna eta kutsatzeko arriskuarekiko esposizioa dira, zeharkako ekitate-printzipioa errespetatuz betiere.

1. TALDEA. Adinekoei eta mendekotasun handia duten pertsonen arreta emateko egoitzetako egoiliarak eta horietan lan egiten duen pertsonal sanitarioa eta soziosanitarioa.

Kalteberatasun-irizpideari jarraitzen dio, eta "immunitate-burbuilak" sortzeko txertaketa-metodoari jarraitu zaio; hau da, zentro osoen arabera jarri zaie txertoa egoiliar guztiei eta langile guztiei.

2. TALDEA. Esparru sanitarioko eta soziosanitarioko lehen lerroko pertsonala. Honako arrazoi hauengatik esposizio-arrisku handiena duen pertsonala: (1) COVID pazienteei zuzeneko arreta emateko jarduerak egitea (harreman estua eta esposizio-denbora luzeagokoa), eta (2) SARS-CoV-2 bidezko infekzioa duen pertsona batekin kontaktua izateko probabilitate handiagoa izatea. Talde honetan sartzen da:

- **Esparru sanitarioko pertsonala**, pazienteari begira lan egiten duena, honako ingurune hauetan (barne dela zerbitzu sanitarioak ez diren beste eginkizun batzuk betetzen dituen —administrariak, garbitzaileak, boluntarioak, ikasleak, etab.):

Lehentasuna	Unitate/zerbitzu motak	Unitateen adibideak
1	Elkarreraginean aritzen da COVID-19a dutela susmatzen den edo baieztatuta dagoen pazienteekin, aurrez aurre nahiz haien lagin biologikoekin.	<ul style="list-style-type: none"> • Intentsiboen eta kritikoen unitateak • COVID-19 unitateak • Ospitaleko larrialdiak • Etengabeko Arretako Gunea / Lehen mailako arreta presentziala • Larrialdietako unitate mugikorak • SARS-CoV-2 txertaketa-taldeak • Infekzio Aktiboa Detektatzeko Probak egiteko taldek • Barne-medikuntzako unitateak, infekziosoak, pneumologia, anestesia... • Egoitzaratutako pazienteen unitateak (psikiatria, egonaldi luzea...)



		<ul style="list-style-type: none"> • Proba osagarriak • Mikrobiologia-laborategia
2	Bereziki kalteberak diren pazienteak artatzen dituen pertsonala	Onkohematologia, nefrologia, hemodialisia, aringarriak, jaioberriak...
3	Beste paziente batzuk artatzen dituen pertsonala eta lagin biologikoekin lan egiten duen pertsonala	<ul style="list-style-type: none"> • Txertaketa-taldeak, barne direla COVID-19aren aurkako txertoak ematen parte hartuko duten laneko osasuneko eta prebentzio-medikuntzako pertsonak • Zerbitzu kirurgikoak • Eguneko ospitalea • Endoskopiak • Análisi klinikoak • Anatomia patologiako...
4	Bestelako langileak	Azpikontratak barne hartzen ditu, garbiketa izan ezik, hori bere erreferentziako unitatearekin txertatuko baita (halakorik badago)

Lehen mailako profesionalen 2. talde honetan, Osakidetzakoak ez ezik, honako hauek ere sartu behar dira:

- Klinika eta ospitale pribatuetako osasun-profesionalak.
 - Itundutako osasun-garraioko enpresetako profesionalak.
 - Itsasoko Gizarte Institutuko (IGI) eta Kanpo Osasuneko profesional sanitarioak.
- **Esparru soziosanitarioko pertsonala.** Adineko eta arriskuko pertsonen arreta emateko beste zentro batzuetan lan egiten duen pertsonala hartzen du (1. taldean sartutako egoitzetakoa ez dena):
- Ospitale psikiatrikoetako egonaldi luzeko egoitza-unitateak.
 - Nahasmendu mental kronikoetako pazienteen egoitza soziosanitarioak.
 - Komunitate terapeutikoak.

3. TALDEA. Bestelako pertsonal sanitario eta soziosanitarioa.



3.A taldea.

- Lehen mailako arretako ospitale-esparruko langileak, lehen lerrokotzat jotzen ez direnak —2. taldea—, lan-jardueraren esposizio-arriskuaren eta babes-neurri egokiak hartzeko aukeraren arabera.
- Maskararik gabeko pazienteak 15 minututik gora artatzen dituzten profesional sanitarioak, hala nola estomatologia eta odontologiakoak, hortz-higieneakoak, medikuntza estetikoak, logopedak, foniatrak, etab.

3.B taldea.

- Pandemiaren kudeaketan eta erantzunean inplikaturik dagoen eta 2. taldean txertatu ez den osasun publikoko zerbitzuetako pertsona.
- Eguneko zentro soziosanitarioetako pertsona.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroetako pertsona (desgaitasuna dutenentzako tutoretzapeko etxebizitzak eta beste batzuk).
- Udalen etxeko laguntza-zerbitzuak (ELZ).
- Osasun Saileko, GSINeko eta lan-istripu eta gaixotasun profesionalen mutualitateetako (LIGPM) ikuskapen medikoetako profesional sanitarioak, pazienteak beren eginkizunak betetzeko miatzen dituztenak.
- Lege- eta auzitegi-medikuntza.
- Kontsulta mediko partikularrak, fisioterapiako edo errehabilitazioko kontsultak edo kabineteak, terapeuta okupazionalak, farmazia-bulegoetako pertsona, psikologia klinikoko kontsultak, podologiako kontsultak, hortz-protetikokoak.
- Osasun-ikuskapeneko, lege-medikuntzako eta auzitegi-medikuntzako zerbitzuak.
- Adineko pertsonen etxebizitza komunitarioetako pertsona (15 pertsona baino gutxiagoko adinekoen kongregazio erlijiosoak barne).
- Epai judiziala duten adingabeen (16-18 urte) egoitzetako pertsona. Gazte-justizia.
- Helduen espetxeetako pertsona.

3.C taldea.

- Aurretik txertoa hartu ez duen gainerako pertsonal sanitarioa eta soziosanitarioa.

4. TALDEA. Mendekotasun handia duten instituzionalizatu gabeko pertsonak.

III. graduako mendekotasuna duten pertsonak, hau da, laguntza-neurri handiak behar dituztenak, eta gaur egun etxean bizi direnak.

5. TALDEA. Instituzionalizatu gabeko biztanleria-taldeak:

5.A taldea. 80 urteko eta hortik gorako pertsonak. (1941ean eta aurreko urteetan jaiotakoak).

5.B taldea. 70-79 urte bitarteko pertsonak. (1942aren eta 1951ren bitartean jaiotakoak).

5.C taldea. 60-69 urte bitarteko pertsonak. (1952aren eta 1961aren bitartean jaiotakoak).



80 urte edo gehiago dituzten pertsonei lehentasuna eman beharko zaie, eta 3. taldearekin batera txertatzen hasiko dira, Pfizer txertoen dosien eskuragarritasunak ahalbidetzen duen neurrian. Adin handiagotik txikiagora deituko zaie txertoa jartzeko.

6. TALDEA. Esposizio-arrisku handiena duten “funtsezko” profesionalak:

Azpiegitura kritikoak babesteko neurriak ezartzen dituen apirilaren 28ko 8/2011 Legeak, 2. artikuluan, honela definitzen du “funtsezko zerbitzu” gisa ulertu beharko dena: “beharrezko zerbitzua herritarren oinarrizko eginkizun sozialei, osasunari, segurtasunari eta ongizate sozial eta ekonomikoari, edo Estatuko instituzioen eta administrazio publikoen funtzionamendu eraginkorrari eusteko”.

Kolektibo horietatik, talde honetan sartzeko dira kutsadurarekiko esposizio-arrisku handiena dutenak, eta honako lehentasun-ordena hau ezartzen da:

6.A taldea. Segurtasun Indar eta Kidegoak, Larrialdiak eta Indar Armatuak.

- Honako hauek barne hartzen ditu: Guardia Zibila, Polizia nazionala, autonomikoa eta lokala, suhiltzaileak, Segurtasun Indar eta Kidegoetako teknikariak, Babes Zibileko, Larrialdietako eta Indar Armatuetako profesionalak.

6.B taldea.

- Haur Hezkuntzako eta premia berezietako irakasleak (barne direla bai irakasleak, bai ikasleei arretea ematen dieten bestelako profesionalak).

6.C taldea.

- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak (barne direla bai irakasleak, bai ikasleei arretea ematen dieten bestelako profesionalak).

Talde horiei, txertoen eskuragarritasunaren neurrian, 5. taldearekin batera hasiko zaie txertoa ematen.

Aurrekoak ez ezik, txertoen eskuragarritasunaren neurrian, honako kolektibo hauek ere hartuko dira kontuan:

- Supermerkatuetako kutxazainak, garraio publikoko garraiolariak, ofizioko txandako abokatuak eta ehorzketa-enpresetako enplegatuak.

7. TALDEA. COVID-19aren ondorioz gaixotasun larria jasateko arrisku handia duten 60 urtetik beherakoak

- Arrisku handiko baldintzak dituzten 16-18 urtetik gorakoei 60 urtekoek eta gehiagokoek txertoa hartu ondoren jarriko zaie txertoa. Arrisku handiko baldintzak zehazten ari dira eta, ondoren, onartu egin behar dira, Lurraldeen arteko Kontseiluaren Osasun Publikoko Batzordean.



8. TALDEA. 56 eta 59 urte bitartekoak (1962aren eta 1965aren bitartean jaiotakoak, biak barne)

- Talde honetakoek, printzipioz, ARNm-ren txertoa hartuko dute, baina beste txerto batzuk erabiltzea aztertuko da, EMak txerto horiek baimendu ahala edo egungo txertoen datu gehigarriak daudenean.

9. TALDEA. 45 eta 55 urte bitartekoak (1966aren eta 1976aren bitartean jaiotakoak, biak barne)

- Talde honetakoek, printzipioz, AstraZenecaren txertoak hartuko dituzte, edo aurrerago erabilgarri dauden beste batzuk.
- Antolamentu-kontuak direla-eta eta aurreikusitakoa egingarria izan dadin, gainjarri ahalko da 3., 4. eta 5. taldeetan jaso diren kolektiboen txertoa, bai eta 6. eta 9. taldeena ere.

Espetxeetako populazioak aurrerago hartuko du txertoa, txertoen eskuragarritasunaren arabera eta adin-irizpideak kontuan hartu gabe. Komeni da populazio horretan txertaketa-jarduerak taldekatu eta sinplifikatzea, zentro bakoitzaren egoerak aintzat hartuta. Hori hala egitea komeni da, egingarritasun-kontuengatik eta zentroetako sarbidearen kontuarengatik, eta esposizio-arrisku handiagoa eta kalteberatasunaren aurreko behar- eta babes-printzipioa kontuan hartuta. Barneratu bakoitzarentzat adierazitako txertoa erabiliko da, bakoitzaren egoerak aintzat hartuta (adina).

2. PERTSONA TALDE BAKOITZEAN ERABILI BEHARREKO TXERTO MOTAK

Astra Zeneca sartzeak aldaketa handia dakar Pfizer eta Moderna txertoen ezaugarriekin alderatuta. Lehenik eta behin, Astra Zeneca, adin-talde guztietan segurua bada ere, ez da aztertu haren eraginkortasuna, oraingoz, 55 urtetik gorako pertsonengan. 55 urtetik gorako pertsonekin egindako azterlanen emaitzaren zain gaude, txerto horrek adin-talde horretan duen eraginkortasuna baloratzeko. Azterlan horien emaitzen arabera, txertoaren erabilgarritasuna berriz ebaluatuko da. Bigarrenik, 2. dosiaren inokulazioa denbora luzez geroratuta lortzen da immunizazio handiena. Hamar edo hamabi astera arte itxarotea gomendatzen da. Pfizerren bigarren dosia, berriz, 21 egunera inokulatzen da, eta Modernarena 28 egunera.

Hiru txertoen ezaugarri horiek eta bakoitzaren eskuragarritasuna kontuan hartuta, honako hau da erabilera egokiena, lehenetsitako pertsona taldeen arabera:

- **ARNm txertoak (Pfizer eta Moderna):**
 - Talde hauetako pertsonak: 1, 2, 3.A, 4, 5 eta 7.
- **Astra Zeneca**, oraingoz, honako kolektibo hauetako 55 urtetik beherakoentzat:
 - Talde hauetako pertsonak: 3.B eta 6.



- 55 urteko biztanleria, oro har, eta patologia larririk gabeko adin horretatik beherakoak.
 - **ARNm txertoak (Pfizer eta Moderna):**
 - Honako talde hauetako pertsonak: 1, 2, 3.A., 4 (56 urte edo gehiagokoak), 5, 7 eta 8.
 - **AstraZeneca**, oraingoz, honako kolektibo hauetako 55 urteko edo gutxiagoko pertsonentzat:
 - Honako talde hauetako pertsonak: 3.B., 3.C., 4 (55 urte edo gutxiagokoak), 6 eta 9.
 -
 - **3. INFEKZIO-AURREKARIAK DITUZTEN 55 URTEKO ETA GUTXIAGOKO PERTSONAK**
-

Infekzio asintomatikoko edo sintomatikoko aurrekariak dituzten 55 urteko eta gutxiagoko pertsonak, larritasuna gorabehera, komeni da:

1. 55 urtetik beherakoen kasuan. Dosi bakarreko txertoa hartzea, infekzioa jasan edo infekzioaren diagnostikoa jaso eta sei hilera.
2. Lehen dosia jaso ondoren SARS-CoV-2ren infekzio-diagnostikoa duten 55 urtetik beherakoek. Sei hilera txertoa hartzea, dosi bakararekin.

4. TXERTAKETA-TALDEAK

Txertaketa-taldeak erizainek osatzen dituzte. Horiek, aurretik, hiru lurraldeetako Osasun Publikoko zuzendariordetzetako pertsonalak trebatzen ditu. Trebakuntzak bi zati ditu:

- Bialak maneiatzea: kontserbazioa, garraioa eta manipulazioa; txerto mota bakoitzaren fitxa teknikoan ezarritako gehieneko dosien kopurua lortzeko jardunbide egokiak; eta bialak ireki ondoren dosiak aprobetxatzeko irizpideak.
- Txertoa hartu duten pertsonen datu pertsonalak erregistratzea, baita txertoa hartzeko haien baimena edo ezezkoa ere.

Erizaintzako taldeek honako jatorri hauek izan ditzakete:

- **Osakidetza.** Txertoa jartzen diete Osakidetzako zentro sanitarioen sareko pertsonal osoari, enpresako edo mutualitateko medikuntza-zerbitzurik ez duten profesional sanitario pribatuei, itundutako osasun-garraioko sareko pertsonalari eta herritarrei, oro har.
- Ospitaleratzen duten **klinika pribatuak.** Beren pertsonala txertatzen dute, ahal badute.
- Txertatzeko ahalmen propioa duten **instituzio sanitario eta profesional sanitario pribatuak.** Beren pertsonala eta/edo afiliatuak txertatzen dituzte.



- **Enpresen oinarrizko prebentzio-unitateak eta** lan-istripu eta gaixotasun profesionalen mutualitateak (LIGPM). Herritar guztien gainera lehenetsua duten funtsezko profesionalak jartzen diete txertoa (poliziak eta haur-irakaskuntzako eta irakaskuntza bereziko irakasleak, betiere ahalmena badute). Gainerakoaz Osakidetza arduratzen da.
- **Foru-aldundiak.** Eguneko zentroetako eta beste batzuetako pertsonala eta erabiltzaileak txertatzen dituzte.